



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko irailaren 25a

90. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako landa garapenari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan giza enbrioiekin sorturiko lerro zelularren erabilera baimen dezan. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Narbarten, N-121-A errepidean, azpiko pasabide bat egin dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroan zenbat museo edo museo-proiektu dagoen jakiteko, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (8. or.).

—Galdera, Sakanako autobiari eta hura mantentzeko kostuari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (8. or.).

—Galdera, fatxada publikoetako sinbolo frankistak kentzeari buruzkoa, foru parlamentari Félix María Taberna Monzón jaunak egina (9. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria Agag jaunaren eta Aznar andrearen ezkontzara joateari buruzkoa, foru parlamentari Félix José Puyo Rebollo jaunak egina (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Askotariko Taldeko kideen kopurua eta batzorde arruntetako eta berezietako kideak talde parlamentarioen artean nola banatu ezartzen da (12. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 16an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko urriaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektu

2002ko abuztuaren 9ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako landa garapenari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako landa garapenari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko apirilaren 23an 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako landa garapenari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendietadko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko urriaren 15eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan giza enbrioiekin sorturiko lerro zelularren erabilera baimen dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan giza enbrioiekin sorturiko lerro zelularren erabilera baimen dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari.

Espaniako Diabetikoen Federazioaren azken Batzar Nagusi Berezian –2001eko bukaera aldean egin zen– diabetesaren munduan gaurkotasan handia duen gaia jorratu zen: "Zelula amekin helburu terapeutikoetarako egiten ari den ikerketa zientifikoa".

Zelula amen ikerkuntzak ekar litzakeen onurak ezin baliatuz gelditzen da gaixo asko administrazioaren egoera dela-eta; izan ere, une honetan sendaezinak diren zenbait gaixotasun sendatzeko metodo bihur daiteke etorkizunean pankreako zelula amen produkzioa.

Alacanteko "Miguel Hernández" unibertsitateko bioingeniaritza-institutuko ikertzaile taldeak, Bernat Soria Escoms irakasleak zuzenduta, zelula ama pluripotentialak lortzea proposatzen du, zelula horiek zelula intsulina-sortzaile bihurtzeko, eta edozein zelula-andui bihurtzeko ere gai baitira.

35/1988 Legeak baimendu egiten du esperimentazio biogenetikoa enbrio-garapenaren aurreko fasean —ondorengoetan, aldiz, ez—, baldin eta esperimentazioak helburu mediko eta terapeutiko hutsa baldin badu. Hortaz, lege bat egon badagoenez, arazoa zuzenbideari jarraikiz konpondu behar da.

Orain, jakinik kexa orokor hori bideratzeko bide eta prozedurak izan badirela, plataforma bat jaito da, kanpaina herritar bat abiaraziko duena lege aldaketak egin behar badira egin daitezzen, edo bestela, egiten den interpretazioa baino interpretazio irekiagoa egin dadin.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, lege aldaketak barne, ondokoak lortze aldera:

Baimena eman dadin, luzamendutan ibili gabe, giza-enbrietatik abiatuta lerro zelular deribatutak inportatu eta erabili ahal izateko.

Espanian egun dauden enbrio izoztuak erabiltzeko baimena eman dadin, lerro zelular berriak sortzeko.

Klonazio terapeutikoa arautu eta baimendu dadin. Arautze horrek garbi utzi behar du enbrioia umetokian ezartzeko debeku zehatza.

Aipatu gaixotasunak tratatzera zuzenduriko eta aplikaturiko ikerkuntza funts publikoen bidez finantza dadin.

Klonazio terapeutikoaren alderdi zientifiko, sozial eta etikoei buruzko eztabaida susta dadin, gaixotasunei aurre egitean onura gehiago lortzen

dela bermatzen duen araudia taxutze aldera, eta araudi horren bidez etorkizunean kontrol publiko zorrotzik gabeko garapena ekiditeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 10ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Narbarten, N-121-A errepidean, azpiko pasabide bat egin dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Narbarten, N-121-A errepidean, azpiko pasabide bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan eta Azpiegiturako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Narbarten, N-121-A errepideko 20,900 kilometroaren parean aziendarentzako lurrazpiko pasabide bat egiteari buruzkoa, kasuko batzordean eztabaidatzeko.

Eskaeraren azalpena

Belateko mendatea hobetzeko N-121-A errepide berriaren proiektuak luzetara zatitzen du, Zozaiá-Donztebe bideunean, Bertizaranako udal mugapeko 1. poligonoko 282. zenbakiko landa finka. Finka horretan etxebizitza bat eta ukuilu bat daude, abeltzaintzako ustiategi bateko berrehun

abelburu larri eta xehe larratzeko erabiltzen diren beste bi lurzatiarekin mugante.

Proiektuko errepideak aipatu finketara zuzenean sartzeko bidea mozten du, erran nahi baita abeltzaintzako ustiategi horren erdi-erditik pasatzen dela. Mozketa horrek aziendarentzat nahiz erabiltzaileentzat ekarriko lituzkeen arazoak konpontzeko, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, kalte-tuaren alegazioa ikusita, planteatu du ezen azienta errepideko lotune berritik edo 21,195 kilometro-puntutik sar dadila finka horietara.

Errepidetik sartzeko erabiltzaileentzako arrisku eta eragozpen handia dakar, eta 21,195 kilometro-puntuko pasabidea, berriz, ez da bideragarria, ustiategitik urrun baitago.

282, 281-A eta 283 lurzatiak –hantxe kokatzen da abeltzaintzako ustiategia– mozten dituen trazaduraren proiektuaren jendaurreko epea 1999ko apirilaren 13an bukatu zen, eta ez zen bertan pasabiderik egitea aurreikusit.

2000ko urrian proiektua aldatu zen, eta horren arabera pasabidea eginen zen errepide berriaren azpian, baina berriz ere aurreikusten da azienta Bertizaranako sarbide eta irteera berrietatik pasatzea Behobiarako norabidean. Konponbideak ez du halako izenik merezi, agerikoa baita berrehun abelburutik gora aipatu sarbide eta irteera horietatik pasatzeak dakarren arrisku eta nahastea. Eta hori, gainera, debekatuta dago, salbu eta segurtasun indarren kontrolpean egiten ez bada, haiek trafikoa antolatu eta segurtasuna bermatzeko. Aziendak egunean bi eta lau aldi bitartean erabili behar ditu sarbide eta irteera horiek. Nabarmena da horrek arrisku handia ekarriko lukeela. Gogoratu egin behar da zenbait istripu eragin dituela aziendaren joan-etorri horrek, esate baterako iragan abuztuaren 5ean N-111n Asterainen parean

gertatu zena, zeinetan trailer batek artalde bat harrapatu eta 34 ardi hil baitzituen –zorionez, gidaria eta artzaina onik atera ziren–.

2000ko abenduaren 22an, Narbarteko Kontzejuak, hori baita ukitutako udal mugapea, obren buruarekin bildu zen Legasan. 2001eko apirilaren 19an, kontzejua Errepide zuzendari nagusiarekin bildu zen. Orduan erabaki zen 21,800 kilometropuntuaren inguruko lurrazpiko pasabidearen proiektua taxutzea, aziendaren joan-etorriaren arazoa konpontzeko errepide berritik –hartako sarbide nahiz irteeretatik– pasa behar gabe. Konponbide hori ontzat jo zuen Narbarteko Kontzejuak.

2001eko irailaren 4an, Bertizaranako Udalak eta Narbarte eta Legasako kontzejuak Errepide zuzendari nagusiarekin bildu ziren, eta hark berriz adierazi zuen pasabidea ez zela eraikiko.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak emandako arrazoiak, kostu-arrazoiak alegia, ez zituen asetu Bertizaranako Udala eta Narbarte eta Legasako kontzejuak, pasabidea ez eraikitzeak azienta errepideko sarbide eta irteeretatik ibiltzea esan nahi duelako, horrek erabiltzaileentzat dakarren arriskuarekin.

“Belateko mendatea hobetzeko trazadura, Zozia-Doneztebe bideunea” errepide handi bat

lortzeko eraikitzea egungo beharrezko erantzutearren eta, aldi berean, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak proposatzea azienta Bertizaranako errepide berriko sarbide eta irteeretatik pasatzea kontraesan jasanezina da.

Kontuan izanda obraren kostu handia eta erabilgaitasun teknologiarren maila, funsgabea da lurrazpiko pasabidea eraikitzeak zailtasun teknikoak edo kostuak aipatzen hastea.

Aipatu pasabidea beharrezkoa dela ez da zalantzarik. Beharrezko hori zalantzan jartzeak errepide handi batean ibilgailuen trafikokoak eta azientak trazadura partitza normala delako absurdua onartzea dakar, eta istripurik eza hala beharrezko eta zorte onaren esku uztea.

Hori dela-eta, ondoko mozioa aurkeztu dugu, Nafarroako Parlamentuko Herrilan Batzordeak onetsi dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala egin dezan Zozia-Doneztebe bideuneko 20,900 kilometroaren parean azientarentzako azpiko pasabide bat.

Iruñean, 2002ko irailaren 13an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroan zenbat museo edo museo-proiektu dagoen jakiteko

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 16an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Nafarroan zenbat museo edo museo-proiektu dagoen jakiteko egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña

Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Zenbat museo edo museo-proiektu dagoen Nafarroan, zehaztuta museo publikoak edo Nafarroako administrazioaren dirulaguntza jasotzen duten museo pribatuak diren.

2. Nafarroako Gobernuak horietako bakoitzari 1995etik aitzina eginiko ekarpenak.

Iruñean, 2002ko irailaren 6an.

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, Sakanako autobiarri eta hura mantentzeko kostuari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 16an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Sakanako autobiarri eta hura mantentzeko kostuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña

Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Sakanako autobia ez zegoen irailaren 8an –igandea– ibilgailuak bertatik behar bezala ibiltzeko moduan.

Euriak putzu ugari eragin zituen, trafikorako oztopo izateaz gain arriskutsuak zirenak.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Autobia horren mantentze lanek urtero zenbat egiten duten, kontzeptuak zehaztuta.

Putzurik ez sortzeko hobekuntzarik egiten ari al da?

Halakorik egitea aurreikusi al da? Hala baldin bada, zehaztu zer hobekuntza aurreikusi diren.

Hustubideak hobetzen ari dira?

Zehaztu zer neurri prestatu dituen Gobernuak autobia horretan arrisku-egoerak ekiditeko. Xehetasunez azaldu.

Iruñean, 2002ko irailaren 9an.

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, fatxada publikoetako sinbolo frankistak kentzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI FÉLIX MARIA TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 16an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix María Taberna Monzón jaunak fatxada publikoetako sinbolo frankistak kentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Gobernuak, Nafarroaren identitatea zaintzeko aitzakian, sinboloei buruzko legea aldatzeko

asmoa azaldu du. Denok dakigunez, Nafarroaren identitatea askotarikoa da, eta haren izaera demokratikoa nafarren borondatean oinarritzen da. Nafarroako Parlamentuak, erakunde den aldetik, iragan mendeko 36. urteko estatu kolpea gaitzetsi du.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Noiz kenduko ditu foru gobernuak fatxada publikoetako sinbolo frankistak, esate baterako Nafarroako Kutxan eta Gurutze Plazako institutu-tuan daudenak?

Gobernuaren ustez, beharrezkoa da sinboloen legea aldatzea sinbologia frankista erretiratzeari ekiteko?

Zeri zor zaio ikurrina erretiratzeko interes eta ahalegina? Eta zeri oraindik dirauten sinbolo frankistak kentzeko interes eskasa?

Iruñean, 2002ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Galdera, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria Agag jaunaren eta Aznar andrearen ezkontzara joateari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI FÉLIX JOSÉ PUYO REBOLLO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 16an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix José Puyo Rebollo jaunak Nafarroako Gobernuko Lehendakaria Agag jaunaren eta Aznar andrearen ezkontzara joateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Felix Puyo Rebollok, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Iragan irailaren 5ean, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria gonbidatuta joan zen Espainiako herritar Alejandro Agag eta Ana Aznarren arteko ezkontzara. Lehendakari jauna betetzen duen karguarengatik joan baldin bada ospakizun horre-

tara, nafarren diru-kutxari egotzi beharreko kostua eraginen zuen noski. Hori dela eta, parlamentari honek ondoko galderak egin ditu:

1. Nafarroako Gobernuko lehendakaria den aldetik ala bere izenean joan zen Sanz jauna?

2. Betetzen duen karguarengatik joan baldin bazen, ondokoak jakin nahi ditut:

Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren ordezkari ofiziala osatzen zuten pertsonen kopurua eta horien izenak.

Ospakizun horretara joateak eragindako gastuen xehetasunak (ostatatzea, aparteko gastuak, ekitaldi ofizialak, bazkariak, afariak, opariak eta abar).

Gastua oraindik exekutatu ez baldin bada eta kontuen egoera-orrietan oraindik jaso ez baldin bada, esan zer aurrekontu duen gastuak.

Zer aurrekontu-lerrori egozten zaion gastu horietako bakoitza, hala exekutatu denak nola aurreikusitakoak.

Iruñean, 2002ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Felix Puyo Rebollo

G Sails:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari izateko lanpostu huts bat, itzultzaile eginkizunak ere badituena, oposizio bidez betetzeko deialdiaren 4. oinarriko 4. idatz-zatian ezarritakoaren arabera –deialdia bertako lehendakariaren 2002ko ekainaren 10eko ebazpenaz onetsi zen–, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsi eta argitaratu ondoren eta erreklamazioak aurkezteko epea bukatu, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea.

Deialdiaren 6. oinarriko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, berriz, bidezkoa da ebazpen honen bidez ezartzea oposizioko probak hasteko lekua, eguna eta ordua. Probak lehendabiziko ariketarekin hasiko dira; ariketa teorikoa izanen da, eta idatziz azaldu beharko dira, lau orduz gehiezin, zozketa bidez ateratako bi gai; horietako bat gai zerrendaren lehen zatikoa eta bestea bigarren zatikoa

Horrenbestez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetaria izateko lanpostu huts bat, itzultzaile eginkizunak ere badituena, oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

Onartuak:

Aranguren Arsuaga, Eva

Errea Irisarri, Alberto

Erbiti Zabalza, Fermín

Goyeneche Urrutia, Iosu

Olaiz García, Idoia

Baztertuak:

Garmendia Urtizberea, M.^a Josefa

Eskabidea deialdiko 3. oinarrian aipaturiko epetik kanpo aurkezteagatik.

Bigarrena. Oposizioko lehen ariketa, eta horrenbestez probak, azaroaren 4an, goizeko 09:00etan hasiko direla iragartzea, Nafarroako Kontuen Ganbarako egoitzan —Antsoleaga kalea, 10, Iruña—. Izangaiek nortasun agiria eta identifikatzeko aski den beste agiri bat eraman beharko dute bertara.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko irailaren 17an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Erabakia. Horren bidez, Askotariko Taldeko kideen kopurua eta batzorde arruntetako eta berezietako kideak talde parlamentarioen artean nola banatu ezartzen da

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrek alde zuzenetik erabaki loteslea hartu ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1go. Askotariko Taldea zortzi kidek osatuko dutela ezartzea eta batzorde arruntetako kideen kopuruak oraingoa izaten jarraituko duela, hau da, 14 foru parlamentari. Kopuru hori honela banatuko da talde parlamentarioen artean:

- Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldea: 6 kide.
- Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldea: 3 kide.
- Askotariko Taldea: 2 kide.
- Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldea: kide 1.
- Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldea: kide 1.

• Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldea: kide 1.

2gn. Une honetan dauden batzorde berezien osaketa ondokoa izanen dela ezartzea:

- Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldea: 2 kide.
- Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldea: 2 kide.
- Askotariko Taldea: 2 kide.
- Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldea: kide 1.
- Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldea: kide 1.
- Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldea: kide 1.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

HARPIDETZAREN PREZIOA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	NAFARROAKO PARLAMENTUA
Urte bat 39,07 euro	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	Arrieta 12, 3
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	31002 IRUÑA